

## ADINKERIA DESAGERRARAZTEKO BELAUNALDIARTEKO KANPAINA



Partaidetza eta  
gizarte ehuna



Errespetua eta  
inklusioa



Komunikazioa  
eta informazioa

### Adinkeria desagerrarazteko belaunaldiarteko kanpaina

Barakaldon lagunkotasunaren diagnostikoa egin ondoren, ekimen hau identifikatu eta aurrera eramatea erabaki zuen udalerriko Lagunkoia taldeak: maizenik gertatzen diren adinkeria egoerei aurre egiteko belaunaldiarteko kanpaina. Proposamena Barakaldoko Giltzarri gazte plataformari helarazi zion, kanpaina elkarrekin sortzeko asmotan.

Giltzarri gazte plataformaren eta Barakaldo Lagunkoia talde eragileak berariaz sortutako batzordearen arteko esperientzia partekatua abiapuntutzat hartuta, parte hartzaileek 5 lan saio eta prestakuntza saio bat bideratu zituzten, zeinetan, gogoeta egiteaz gain, kanpainaren xede izango ziren 12 gai hauek aukeratu zituzten: adina eta lana, teknologia, parte hartzeko eskubidea, sexualitatea, duintasuna eta errespetua, nire esperientziak balio du, ezagutu gabe epaitzen naute, pentsioak, bakardade behartua, itxuraren arabera epaitzea, adinekoak eta osasuna, eta ez ikusiarena egiten didate / ez didate entzuten.

Kanpaina biribiltzeko, aukeratutako gaien inguruko 12 argazkiko eta 12 postaleko erakusketa egin zuten, hautatutako irudiak eta esloganak islatzeko eta herritarrek parte hartzeko dinamikari euskarri emateko. Postaletan, herritarren iritziak eta gogoetak jaso zituzten.

Azpimarratzekoa da udalerriko herritarrek ere hartu zutela parte irudiak aukeratzen, eta horietako batzuk adinkeria batzordeko kideak zirela.

Era berean, gertatu ohi diren mikroadinkeriei buruzko esketxak egitea proposatu zen, antzerki modura emateko. Giltzarri plataformako gazteak eta talde eragileko kide batzuk izan ziren aktoreak.

2024an, Barakaldoko bi auzotan gauzatu da kanpaina: Erdigunean (apirilean) eta Lutxana auzoan (ekainean). Urteko azken hiruhilekoan, kanpainaren 3. dibulgazioa egin da, beste auzo periferiko batean: Errekaortun.

Asmoa da kanpaina udalerriko auzo guztietara eramatea. Izan ere, herritarrengana hurbiltzeak eta kanpaina errepikatzeak inpaktu handiagoa emango diote, pertsona gehiagorengana iritsiko delako eta gogoetarako gune gehiago sorraraziko dituelako.

Kanpainaren edukia eta egitura prest izan ondoren, haren berri eman zuten tokiko komunikabideen, prentsaren eta hedabide digitalen bidez.

Gainera, erakusketaren kokagunetik hurbileko zentroak bisitatu ziren (adinekoen zentroak, ISZk, Lutxanako auzokideen elkarteak eta abar), antzokira zein argazki erakusketaren inguruko jardueretara gonbidatzeko.

Taldeak egindako ebaluazioaren arabera, aurretiko bisitak ez ziren oso eraginkorrak izan erakusketako bisitarien kopurua ikusita. Antzokira, berriz, jende gehiago azaldu zen, eta lagungarria izan zen gizarteak adinagatik inposatutako diskriminazio egoeren inguruko eztabaida eta elkarrizketa zabaltzeko.

## 1. Erakunde sustatzaileak

Barakaldo Lagunkoia – Barakaldoko Udala.  
Giltzarri – Barakaldoko Udaleko Gazteria Arloko Plataforma.

## 2. Erakunde mota

Publikoa.

## 3. Xede taldea

Herritarrak, oro har.

## 4. Lurralde eremua

Barakaldo (Bizkaia).

## 5. Egoera

Ezartzeko fasean.

## 6. Etiketak

Estereotipoa – Belaunaldiartekoa – Autoahalduntzea – Eguneroko esperientziak – Sentsibilizazioa.

## 7. Helburuak

Helburu orokorrak eta berariazkoak:

1. Adinkeria agerian jartzea eta hartaz sentsibilizatzea:

- Barakaldoko herritarrak kontzientziaztea pertsonen (gazte zein adinekoek) adinaren arabera jasaten duten diskriminazioaz.
  - Eguneroko bizitzan gertatu ohi diren mikroadinkeriak ikusgai jartzea, erakusketa eta antzerki emanaldien bidez.
2. Belaunaldien arteko errespetua sustatzea:
- Belaunaldien arteko ulermena eta bizikidetzaren harmoniatsua sustatzea, adin talde bakoitzak egiten duen ekarpena aintzat hartzearen garrantzia nabarmenduz.
  - Kanpainan parte hartzen duten gazte eta adinekoek elkarrekin hitz egiteko eta hausnartzeko guneak sortzea.
3. Herritarren parte hartzea sustatzea:
- Herritarren artean adinkeriari buruzko gogoeta aktiboa sustatzea, argazki erakusketa eta postalak erabiliz iritziak jasotzeko eta eztabaida sortzeko tresna gisa.
  - Komunitateko hainbat sektore (elkarteak, adinekoen zentroak eta abar) kanpainan eta horren jardueretan inplikatzeko.
4. Epe luzerako inpaktu iraunkorra sortzea:
- Kanpaina Barakaldoko auzo guztietara hedatzea, gizartean inpaktu iraunkorra bilatzeko eta askotariko adinetako pertsonenganako jarrera eta portaera aldaketak sorrarazteko.
  - Kanpaina denboran zehar errepikatzea, mezua pertsona gehiagorengana hel dadin eta adinari lotutako aurreiritzirik gabeko komunitate inklusiboagoa sustatze aldera.
5. Zahartzaroari eta gaztaroari buruzko eztabaida komunitarioa sendotzea:
- Hitz egiteko eta hausnartzeko guneak sortzea, adinekoen esperientziaren balioaz, gazteek aurre egin beharreko erronkez eta adin guztietako pertsonen duintasunaz eta haiekiko errespetuaz hitz egiteko.
6. Eskubideak eta parte hartze soziala berdintasunez erabiltzea:
- Adin guztietako pertsonen guztizko gizartean aktiboki parte hartzeko duten eskubidea errebendikatzea, barne hartuta lana, teknologia, osasuna eta beste zerbitzu batzuk berdintasunez eskuratzea, adinari lotutako diskriminaziorik gabe.

## 8. Metodologia

DISEINU fasea – Ideia aukeratu eta zehaztea (2023ko ekaina).

- Kanpainaren ideia, ezaugarriak eta egin daitezkeen jarduerak asmatzea.
- Giltzarriri (Udaleko Gazteria Arloko Plataformari) proposatzea.

DISEINU fasea – Lankidetzaren eta belaunaldiarteko lana (2023ko urria).

- Batzorde mistoaren hamabost egunean behingo bilera —udalerriko gazte eta adinekoek, hurrenez hurren Giltzarriri eta Barakaldo Lagunkoian parte hartzen dutenak, osatzen dute batzordea—.
- Kanpainako gaiak eta goiburua prestatzea, irudiak eta edukiak aukeratzeko eta abar.
- Adinkeriari buruzko prestakuntza.

EZARPEN fasea – Ideia gauzatzea (2023ko azaroa).

- Euskarri grafiko, ikus-entzunezko eta dibulgaziokoak sortzea, kanpaina martxan jartzeko.
- Antzerkiaren ideia sortu zen, adinekoek eta gazteek jasaten dituzten askotariko adinkeriak taularatzeko asmoz.
- Argazkiak eta antzerkia egiten laguntzeko pertsonak bilatzea. Giltzarriko antzerki taldeak bat egin zuen.

EZARPEN fasea – Jarduerak ikusgai jarri eta gauzatzea.

- 1. dibulgazioa. Erdigunea: Bideonera (erakusketa eta jarduera karpan) eta ISZ (antzerki foruma).
- 2. dibulgazioa. Lutxana: plaza (erakusketa eta jarduera karpan) eta liburutegia (antzerki foruma).
- 3. dibulgazioa. Errekaortu: kalea (erakusketa eta jarduera karpan) eta kultur etxea (antzerki foruma).

Antzezlaneko saio eta emanaldi guztietan erakusketatik hurbilen dauden udal eta komunitate ekipamenduak erabili dira.

Argazki erakusketaren lehen erakustaldia eta antzezlanaren lehen emanaldia egindakoan, belaunaldiarteko batzorde mistoak lankidetzari eustea erabaki zuen, eta bestelako jarduerak sortu ziren, hala nola jostuntza lantegia eta TikTok lantegia.

Bigarren dibulgazioa egin ondoren, adinekoen eta gazteen arteko lankidetzara ezarri zen, ezagutza eskualdatzeko helburuz: adinekoek josten irakatsi zieten gazteei, eta gazteek *batch cooking* lantegia proposatu zuten. Horrela, udalerrian harremana eta belaunaldiartekotasuna sustatzeko finkatutako helburuetako bat bete zen.

Kanpainako beste jarduera bat 12 irudiz osatutako 2025eko egutegia izan da, eta herritarrengan kanpainaren inpaktuari eta irismenari eusteko helburua izan du.

## 9. Alderdi berritzaileak

Kanpaina hau denboran irauteko helburuz planteatu da hasiera-hasieratik (3 urtez), kaleko jarduerak (argazki erakusketa) eta 12 irudiz zein goiburuz osatutako 2025eko egutegiak erakusten dutenez. Gainera, erakusketa udalerriko gainerako auzoetara eramango da 2025ean eta 2026an.

Alderdi hori berritzailetzat hartzen dugu, orain arte ez baita antzeko kanpainarik egin udalerrian.

Beste alderdi hauek ere hartzen ditugu berritzailetzat, beste leku batzuetara eramateko modukoak direlako eta herritarrei fase guztietan parte hartzeko aukera ematen dietelako:

- Argazki erakusketa Barakaldoko auzoz auzo ibiltzen da, eta bi astez egoten da leku bakoitzean.
- Argazki erakusketaren lehen egunean karpa bat jartzen da, zenbait altzariz eta kafea hartzeko gunez hornitua, herritarren iritziak tokian bertan jasotzen dituzten postalen jarduera gauzatzeko.

- Udalerriko zenbait lekutan, espazio erabilgarri mugatua dela eta, argazki erakusketa bakarrik jartzen da, eta kafearen inguruko jarduera auzoko ekipamendu komunitario batean egiten da.
- Parte hartzen duten adinekoek zein gazteek erabateko protagonismoa dute, kanpaina fase guztietan gidatu duen batzorde mistoaren bidez.
- Herritarrek modelo gisa jarduten dute argazkietan, hala nola gizarte zentroetara joaten direnek, Zainduzen eta antzeko udal programetan daudenek eta udalerriko adinekoen zentroen erabiltzaileek. Antzezlaneko aktoreak ere adinkeria batzordeko kideak eta Giltzarri plataformako antzerki taldeko kideak dira.
- Udalerri barruan ez ezik, Bizkaiko lurralde historikoko beste herri batzuetan ere errepikatzen da jarduera.
- Argazki erakusketa edozein Lagungoia talderi eskaintzen zaio, betiere ondo zaindu eta garraiatuko duela bermatzen badu.

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Etengabeko ebaluazioa egiten da kanpainaren fase guztietan, baita batzorde mistoaren bileretan ere.

Erakusketa bakoitzaren ostean ere ebaluazioa egiten da, parte hartzea, bertaratzea, logistika eta abar neurtzeko.

Azken ebaluazioa 3. dibulgazioaren ostean egingo da.

Irudiei buruzko iritziak jasotzen dira.